

JENDAURREAN HITZ EGITEKO ZER JAKIN BEHAR DEN

Zer egin behar dugu ahozko komunikazioa ondo betetzeko?. Hori jakiteko premia gero eta handiagoa dugu, bai etxeko zein kaleko harremanetan, baita ikus-entzunezko komunikabideetan, edota eskolak ematen ari garela, edo beste hainbat halako egoeratan; kontua da, baina, Oratoria, aspaldiko Zientzia izanik ere, gaur egun eskola-unibertsitateetatik aparte aurkitzen dela. Gabezia hori bete nahian, Euskal Idazleen Elkarteak "Oratoriari buruzko Jardunaldiak" egin berri ditu Bilbon, lau egunetako egitaraua betez.

Oratoriaren oinarriak eta bilakaera historikoa, gaur egungo erretorika berria, oratoria ipuin kontularitzan eta antzerkian, politikagintzan zein komunikabideetan, baita argudiatze okerak eta falaziak aztertu dira Bidebarrieta Liburutegiko jardunaldi hauetan.

1.- Jose Mari Satrustegi: oratoria bedeinkatutik, pertsonaren neurria

"Oratoria bedeinkatuaren ikastaroak" aipatu zituen lehen hitzaldiaren hasieran Jose Mari Satrustegi euskaltzainak, bere aspaldiko interesari iturria jarriaz, eta jarraian oinarrizko irakaspen baliotsuak eman zituen.

Lege orokor bat jarraitu behar da: ahuletik indartsura bideratu diskurtsoa, eta azkenean, ahal dela behintzat, ustekabea eskaini, entzuleria harrituz.

Behar diren dohainak:

1. Hiztegia:

Hiztegiaren ezagutza egokia, eta altxor horretan, lokuzioak, euskarak oparo eskaintzen dituenak: "batek omen, besteak amen".

2. Erretorika:

Irudia, pentsamenduaren oinarri izan zen historian, ideia abstraktua agertu aurretik; horren arrastoa ikus daiteke hitz zaharren formazioan. Sinbologia horrek eragiten du giza sentimendua:

"Hor goian-goian izarra..." koplak ezagunean, adibidez: izarra-lizarra-bizarra lotura horretan, irudiek transmititzen duten mezu baikorrak aurretik jada irabazten du entzulearen bihotza.

Prosopopeia baliabide indartsua da halaber: "erori, mendiak, gure gainera!"

3. Filosofia:

- Edukiak duen garrantzia erabatekoa da: ez dago eduki bako diskurtsorik Diskurtso horri ematen dizkiogun helburuak argitu, eta, baliabide orekatuak erabili gero.

- Logika: arrazoi nagusiak mailakatu banan-banan, ahuletik indartsura.

- Egia erdiarekin ezin ondorio osorik eskaini. Silogismo faltsuak ezin dira ontzat eman.

- Kritika, dialektika, aurkariaren argudioak entzun eta erantzun.

Irakaspen zehatz hauen ondoren, honako ideiatan laburbildu zuen Satrustegi jaunak bere mezua: Oratoriaren neurria pertsona da, pertsonari zuzendua delako diskurtsoa. Entzuleria bakoitzari egokitu behar zaio, beraz, diskurtsoa, eta berau ez doa paperean, jendaurrean esatekoa delako; zilegi da, hala

ere, eskematxo bat eramatea, agian horrek laguntza psikologikoa eman dezakeelako, moztuta geratzeko beldurra gaindituz.

Amaitzeko, Oratoriak humanismoaren bidera itzuli beharra aldarrikatu zuen.

2.- Joxerra Garzia: hizkuntzaren helburu lehena, pertsuasioa

Bigarren egunean, Joxerra Garzia irakasle eta idazlea mintzatu zen gaur egungo erretorika berriaz, eta honen iritziz, beti gainbeheran doan artea da oratoria, lehengoak beti hobe zirelakoan. Gaur, funtsik eta egiturarik ez duela kritikatzeko da. Berriketa, blaga bilakatu dela.

Erretorikaren azterketan, iturri klasikoetan oinarritzearen aldeko agertu zen hizlaria, puntuz puntu aurrera eginez:

1.- pertsuasio-maila: hizkuntzaren lehen helburua eta printzipala bera da: eragitea bilatzen du hizkuntzak, pertsuasioa da lehen helburua hitz egitean. Horren gainean hainbat teknika eraiki da.

2.- Gehitutako teknikak: historian zehar garatu den jarduna

3.- maila zientifikoan:jatorrian, Aristotelesen "Retorica"

4.- 3 genero mota:

- Judiziala
- Deliberatiboa
- Epidiktikoa

5.- Hurrengo 5 canon, zati edo urrats bereizten dira:

1.- INVENTIO:argudio egokiak bildu

2.- DISPOSITIO: ordenatu, graduazioa eman

3.- ELOCUTIO: ondo formulatu

4.- MEMORIA: buruz ikasi

5.- ACTIO: esan, adierazi, bota!

Joxerra Garziaren ustez, gaur egun ere baliagarri gertatzen den metodologia da, eta Perelmanek ere Aristoteles osoa errebindikatu du erretorika berria aztertzerakoan.

Kontutan hartzekoa da, halaber, ahozkoa ez dela egituratu gabea. Ez da beti jarioa, diskurtsoa izaten da, eta aurretik presatua eta egituratua, beraz.

- Diskurtsoa=xede bat lortzearren egituratzen den sekuentzia bezala defini daiteke..

- Actioa edo diskurtsoa gauzatzea bera da azken urratsa: horretarako kontseiluak:

1. Ebakera: distantzia egokiak markatu entzulegoarekiko, elkarrizketatuarekiko, etab.

2. Intentsitatea: nabarmendu nahi denari eman.

3. Lastertasuna: pausak administratu.

Hitzaldia audientziaren arabera egokitu behar: lehenengo kontaktua egin, zubiak eraiki, gero mezua sartzeko.

Ahotsaz gain: begirada, eskuak komunikazioa egokitzeko.

Publizitateak lantzen du gaur egun gehien erretorika: premia duelako; poesia ugari darabil, pertsuasiorako egoki delako.

Kritika gaur egungo joerei: "emoticons": ezina ikono egina.

3.- Koldo Ameztoi eta Ander Lipus: oratoria ipuinetan eta antzerkian:

Hirugarren egunean, ipuin kontularitza eta antzerkia jarri ziren plazan, eta Koldo Amestoi ipuin kontalariaren prestakuntza metodikoa glosatu zuen, karakoiltzearen metafora erabiliz, korapiloa lotu eta deslotu egiten dela adierazteko.

Ander Lipus teatrogileak, bere aldetik, Oratoriak Antzerkian bete behar dituenak zehaztu zituen modu honetan:

1. Intentzioa

2. Presentzia fisikoa

3. Erritmoa
4. Ahotsa
5. Espazioa

Autore-aktore-ikusle triangeluaren inguruan burutazioak eskaini zituen, eta teatro linealaren alde mintzatu, ez aurretik markatu gabe aktorea jainko demiurgoa kontsideratu behar dela testua hartu eta antzezteko prozesuan.

4.- Arantxa Ozaeta eta Bingen Zupiria: falaziak argituz batetik, telebistaren zentralitatea aldarrikatuz bestetik

Laugarren eta azken egunerako interes biziko gai polemikoak gorde ziren: oratoriaren tranpa edo falaziak nola deskubritu, batetik, eta politikarien eta komunikabideen jarioak bestetik.

4.1. Arantxa Ozaeta irakasleak bete zuen lehen parteak, argudiatze ona eta txarra bereiztuz:

- Argudio txarrak: arrazoibidetik ez datozenak, ez dira logikaren bidekoak; aldiz, edo emozioetatik edo gertaerak aldatzetik datoz, eta deskalifikazioa erabiltzen dute sarri.
- Argudio ona: konponbidea, elkarrizketa bilatzen duena.
- Falazia: elkarrizketarako oztopo. Ez da nahigabe egina, intentzionatua da.

Adibide gisa: Unai Elorriagari buruzko falazia esan berriak eskaini zituen: "extraterrestre, chaval" deskalifikazioak, eta "lastozko gizonaren teknika": berak esandakoa degradatu, gero buelta emateko.

- Falazia oso pertsuasiboa da, talde-kohesioa lortzeko erabilia, baina ez du kontsensurako laguntzen.
- Galdera konplexu baten atzean falazia ezkututzen da: "non gorde zenuen hiltzeko erabili zenuen arma?".
- Argudio erredundantea: "si porque si": ez da arrazoirik eskaintzen, eta frogatu beharrekoa frogatutzat ematen da.

- “aldatz behera labankorra”: “hau eskatzen baduzu, gero hau, gero beste hura...” “si la chapuza de Ibarretxe...”
- ethos. Nork esaten du?. Autoritatea.
- Zatia osoaren ordez.
- Anbiguotasuna: hitz gakoak: demokrazia. Bakea,...

Falazia edo argudiatze okerren disezioa egin ondoren, Ozaeta irakasleak gaur erabiltzen den oratoriaren beraren helburuak eta moduak aldatzea proposatu zuen, atxikimenduaren ordez, akordioa eta konponbidea helburu herrizat hartuz.

4.2. Bingen Zupiria kazetari eta Euskal Telebistaren zuzendariak politikarien eta komunikabideen oratoria aztertu zuen azkenik, baieztapen polemiko bat plazaratuz: “Igorlea da mezua”, esan zuen Zupiriak, eta Telebista, berriz, baldintzatzaile nagusia gaur egungo oratorian, entzuleria inoiz ez besteko zabalalortzen duelako.

Telebista den medioak markatzen du albistea bera nola eskaini:

labur eta argi, titularretan esan behar dira gauzak.

Hortik esatari edo aurkezlearen garrantzia, berau bitartekari bilakatzen delako albistearen eta ikusleriaren artean. Saltzaile bilakatu da aurkezlea.

Ildo horretan jarraituz, aurkezleak behar dituen ezaugarriak honela laburtu zituen:

- 1.- Itxura fisikoa.
- 2.- ahotsa.
- 3.- hizkera.
- 4.- bat-baterako erraztasuna.
- 5.- arreta deitzeko ahalmena.
- 6.- pantailaren bestalderaino heltzeko abilidadea.
- 7.- erraz esan.
- 8.- edukiak interesgarri eskaini.

Teoriari eta praktikari begirada zabala eskaini zitzaion, beraz, Oratoriari buruzko jardunaldiotan Bilbon, eta Euskal Idazleen Elkarteak azkenaldian hain ugari eta egoki antolatzen dituen jardunen artean fruitua emango duen horietakoa iruditu zaigu Bilbokoa.

Karmelo Landa